

FORO ERREGULARRAREN BILERA: PLANA ABIARAZTEA

LEHENDAKARITZA – 2018KO AZAROAREN 15A

Gai-zerrenda	<ol style="list-style-type: none"> 1. Altak eta bajak Foro Erregularrean 2. Aurreko bileraren aktaren onarpena 3. Herritarrentzako bertsioaren entrega eta errepasoa 4. Konpromiso-taldeen egoeraren aurkezpena 5. Foro erregularraren rola eta zereginak ezarpen-prozesuan 6. Hurrengo urratsak
Iraupena	16:00 - 19:00

ERAKUNDEA	TITULARRA	BERTARATUA
Eusko Jaurlaritza	Luis Petrikorena - Gobernu Irekiko zuzendaria	BAI
Eusko Jaurlaritza	Javier Bikandi - Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko zuzendaria	BAI
Arabako Foru Aldundia	Nekane Zeberio - Ahalduen Nagusiaren Kabineteko zuzendaria	BAI
Arabako Foru Aldundia	César Rodríguez - Gardentasun eta Partaidetzako teknikaria	BAI
Bizkaiko Foru Aldundia	Leyre Vitorica- Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako zuzendari nagusia	BAI
Bizkaiko Foru Aldundia	Diego Álvarez – Datu irekien zerbitzuko arduraduna	BAI
Bizkaiko Foru Aldundia	Maria Presa – Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritzako aholkularia	BAI
Gipuzkoako Foru Aldundia	Joseba Muxika - Herritarren partaidetzako zuzendaria	BAI
Bilboko Udala	Gotzone Zaldunbide - Herritarrentzako Arreta, Partaidetza eta Barrutiak Arloko zinegotzi eskuordetua	BAI
Donostiako Udala	Edorta Azpiazu - Lehendakaritza zuzendaria	BAI
Gasteizko Udala	Vale Tena - Alkatetzako aholkularia	EZ
Eudel	Roberto Cañon - Eudeleko antolaketako burua	EZ
Innobasque	Gotzon Bernaola. - Berrikuntza Publikoko zuzendaria	BAI
Ibatuz	Antxon Gallego	BAI
Mestiza elkarte	Ana Molina	BAI
Osoigo	Eneko Agirre	BAI
Emakumeen Kontseilua	Arantza Otaolea	EZ
Euskadiko Gazteriaren Kontseilua	Maialen Olabe - <i>Burua</i>	BAI
Sareen Sarea	Mikel Barturen	BAI
Gasteizko kontzejuak	Miren Fernández de Landa	BAI
Idazkaritza teknikoa	Koldobike Uriarte - <i>proiektuaren arduradun teknikoa</i> Goizalde Atxutegi - <i>Innobasque-ko proiektuen arduraduna</i>	

1. ALTAK ETA BAJAK FORO ERREGULARREAN

Bi alta / baja egon dira Foro Erregularrean.

Lehena, Alberto Ortiz de Záraterena, Gipuzkoako Foru Aldundiko Etika Batzordeak Foro Erregularren parte hartzearen eta ekintza-plana garatzean zerbitzu-hornitzaile izatea hautatzearen artean dagoen bateraezintasunari buruz ezarritako ebazpenaren bidez sortua. **Bere ordezkari Antxon Gallego**, Ibatuz enpresakoa, Albertok berak izendatu zuena bere ordezkari Foro Erregularrean. Jakinarazi denez, horrek ere ordezkari bat izendatu dezake, hala nahi badu.

Bigarrena, bestetik, **Nerea Martiartuarena**, lehen Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako zuzendari nagusia zenarena, kargua utzi izanagatik ezarria, jardura pribatuaren eremura itzuli baita. **Zuzendari berria Leyre Vitorica** da, lehen zuzendaritza horretako aholkularia zena, eta erantzukizun berri hori eta bere Zuzendaritzak planean hartutako konpromisoak hartu ditu bere gain.

2. AKTAREN ONARPENA

Aurreko bileraren akta onartu da, datan egondako akats bat zuzendu ondoren.

3. HERRITARRENTZAKO BERTSIOAREN ENTREGA ETA ERREPASOA

Foro Erregularra osatzen duten pertsonen OGPrak bidalitako Ekintza Planaren paperezko ale bat entregatu zaie.

Era berean, jakinarazi denez, **Planaren bertsio sinplifikatuagoa eta operatiboa jorratu da (herritarrengandik hurbilago dauden hizkuntza eta ikuspegi erabilita), eta, han, OGPrek eskutik jasotako hobekuntza-iruzkinak ere sartu dira**. Bertsio operatibo hori urriaren 30ean bidali zitzaion OGPri, eta herritarren inplikazio handiagoa lortzea eta bideragarritasuna egiaztatzea du helburu, konpromiso-taldeetan parte hartzen duten pertsonen ikuspegi ere sartzen baitu (planeko partaidetza-maila biderkatuz). Horixe izan da, hain zuzen ere, irailean eta urrian garatu den zeregin nagusia. Herritarrentzako bertsioan, hizkuntza sinpletu nahi izan dugu, adierazleak sartu ditugu, eta argi utzi nahi izan dugu konpromiso bakoitzean zein fase eta bitarteko izango ditugun.

Azaroaren 6an bilera bat egin zen Madrilen OGPrekin, eta hara GFako, BFako, Innobasqueko eta Osoigoko ordezkariak hurbildu ziren, OGPrak ekintza-planaren gainean zituen iritziak eta asmoak jasotzeko. Honako alderdi hauek azpimarratu dira:

- Entregagaien garrantzia azpimarratu zuten. Nahiz eta faseetan eztabaidak egin behar diren, beharrezkoa da eztabaidak itxi eta emaitzak jasotzea, horren arabera neurtuko baita plana.
- OGPrak dagoeneko aukeratu du planaren tokiko ebaluatzailea: Javier Ariñano, Deustuko Unibertsitateko Etika Aplikatuko Zentrokoa. OGPrek ebaluazio-metodologiaren gaineko prestakuntza jasotakoan, harekin bilera bat egitea proposatuko da, plana zein den eta adierazleak eta gure jarraipen-proposamena (ebidentziak, datuak...) zein diren azaltzeko.
- Planaren erakundearteko gobernantzan eta haren irismen eta emaitzetan itxaropen altuak dituzte, Euskadi gobernu irekiaren politika aurreratuetan eredu izan daitekeela uste baitute.

- Konpromisoen arloan, berariaz nabarmendu zen oso kontuan izan behar ditugula OGPren beste esperientzia batzuk, eta bat egin behar dugula tokiko sareko esperientzia desberdinekin.
- Eskualdeen programa zabaltzea eta erreferente izango den praktika-erkidego bat bihurtzea ari da planteatzen OGP.

4. KONPROMISO-TALDEEN EGOERAREN AURKEZPENA

#K1 – KONTU-EMATEA:

Liderra: Eusko Jaurlaritza – Gobernu Irekiaren Zuzendaritza eta Bizkaiko Foru Aldundia - Behatokia

Kontu-ematearen kontzeptua bera itzultzea izan da lehen zailtasunetako bat. Kontu-ematearen alorrean aurrerapen handienak egin dituzten erakundeen lanean oinarrituta, helburua honako hau litzateke: egiteko modukoak eta iristeko modukoak diren eta administrazio desberdinen artean trukatu daitezkeen adierazleen esparru bat lortzea. Horretarako, beharrezkoa izango da adierazle horiek tamaina desberdinetako erakundeek garatzeko modukoak izatea eta irisgarriak izatea (hau da, aztertzea ea kontu-ematea nola egon daitezkeen eskuragarriago).

Konpromisoaren esparruan, printzipioz aplikazio estandar bat garatzea izango da helburu nagusia, hau da, oinarrizko pakete bat, ondoren garatu ahal izango dena eta partaidetza informatuagoa izateko beharrezanarekin lotuko dena (parte hartzeko eta komunikatzeko gako batzuk sortuz modu sinpleago, errazago batean), Garapen Iraunkorreko Helburuekin (GIH) bat.

Bilera bat egingo da Eudelekin plana aurkezteko, erabakigarria baita udalek konpromiso horiek garatzeko orduan parte hartzen dutela bermatzea.

Dagoeneko egin da lehen bilera bat konpromisoa abiarazteko, eta, han, fitxa operatiboa landu eta taldea eratu zen (ikuspegi instituzionala emateko 6 lagun, herritarren ikuspegia emateko 6 lagun eta adituen ikuspegia emateko 5 lagun).

#K2 – OPEN DATA

Liderra: Eusko Jaurlaritza – Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza (DACIMA) eta Bizkaiko Foru Aldundia – Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza

Konpromiso honen helburua honako hau da: ez jorratzea hainbeste administrazio bakoitzak ireki ditzakeen datuak (hala egiten jarraitu beharko den arren), eta, horren ordez, gehiago jorratzea herritarren interesekoak diren hiru erakunde-mailetan datu-multzoak irekitzeko aukera, horiekin zerbitzuak garatze aldera.

Une hauetan, konpromiso-taldea eratzean hiru ikuspegiak hartu dira kontuan (erakundeen ikuspegia ematen duten 9 lagun, herritarren ikuspegia ematen duten 12 lagun eta adituen ikuspegia ematen duten 2 lagun). Eremu honetan, batzuetan nahasi samarra da herritarren eta adituen ikuspegiaren arteko aldea. Nabarmenezkoa da administrazio guztiek konpromisoan duten partaidetza, horrek, konpromisorako eragiten dituen onurez gain, koordinaziorako ohitura eta mekanismo garrantzitsuak ezartzen baititu etorkizunerako.

Kontratazio-prozesu bat egin da, eta, horretarako, baldintza-agiria jendaurrean zabaldu da, eta konpromiso-taldea proposamenen balorazio teknikoaren parte bihurtu da. Enpresa esleipenduna Desidedatum Data izan da (14.997 euro + BEZ, azaro eta otsaila bitarteko

lanetarako), eta bera arduratuko da lehen fase horretan taldea dinamizatzeaz, bai eta herritarren interesekoak izan daitezkeen datu-multzoak identifikatzeaz ere.

Martxan dauden ekintzak: konpromiso-taldearen bilera azaroaren 23an (helburua: proposamena egokitzea) eta konpromiso-taldearen bilera abenduaren 20an (helburua: lehen lanak baliozkotzea).

#K3 – HERRITARREN PARTAIDETZAKO BERRIKUNTZAREN ILAB-A

Liderra: Eusko Jaurlaritzza – Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza (DACIMA), Gipuzkoako Foru Aldundia – Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritza eta Innobasque

Herritarren partaidetza berrikuntza aritzeko espazio bat garatzea da helburua, bertatik edan dezaten administrazio publiko guztiek eta balio publikoa sortzen duten eta herritarren partaidetza-prozesua martxan jarri nahi duten erakunde pribatuek.

#K2 konpromisoan bezala, kontratazio irekiko prozesu bat egin da bi kontraturako: lehena ilab-en kontzeptuak ezarri eta mapa zehazteko (enpresa esleipenduna: ColaboraBora; zenbatekoa: 14.750 euro + BEZ; eta egikaritze-epea: 2018ko azaroa-2019ko otsaila); bigarrena, konpromiso-taldeko idazkaritza teknikorako eta gobernantza-eredua diseinatu eta probatzeko (enpresa esleipenduna: Tipi Gara; zenbatekoa: 14.999 euro + BEZa; egikaritze-epea: 2018ko azaroa - 2019ko iraila).

Mapaketa-prozesu batekin abiaraziko da konpromisoa, ilab-aren kontzeptuak ezartzeko elementuak eskainiko dituen. Konpromiso-taldeak partaidetza garrantzitsua izango du konpromisoaren garapenean, eta, horretarako, talde zabal eta anitza eratu da (erakundeen ikuspegia ematen duten 7 lagun, herritarren ikuspegia ematen duten 7 lagun eta adituen ikuspegia ematen duten 9 lagun), eta dinamika oso horizontalarekin egingo da lan. Pilotuen esparruan ere egingo da lan (batzuk edo beste batzuk hautatzera eramango gaituzten irizpideak modu irekian erabakiko dira, kontuan hartuta zein administrazio hartu duen bere gain erronka hori, foru-hauteskundeak eta udal-hauteskundeak datorren urtean datozela gogoan izanda). Taldea abiarazi aurretik hornitzaileekin ere bilera bat egin zen, eta, beraz, konpromiso-taldera batu diren hornitzaileek badakite hango parte-hartzaile izatea bateraezina dela hornitzaile izatearekin.

Martxan dauden ekintzak: konpromiso-taldearen bilera azaroaren 19an (helburua: taldearen itxaropenak ezarri eta proposamena egokitzea), eta konpromiso-taldearen bilera abenduaren 18an (helburua: lehen lanak baliozkotzea).

#K4 – OPEN ESKOLA, herritarren eskola

Liderra: Arabako Foru Aldundia – Diputatu Nagusiaren Kabinetea eta Gasteizko Udala

Herritarren partaidetza-eskolaren eredu eskualdagarri bat jorratuko da, edozein udalerrirako baliagarri izan daitekeena, eta lurralde-mailan ere aplikatu daitekeena. Beharrezkoa da ezagutza eta gaitasunak ematea herritarrek parte har dezaten, baina administrazioek ere ikasi egin behar dute partaidetza hori beren politikan sartzen (ez da “herritarrentzako” eskola, baizik eta “herritarren” eskola).

Dagoeneko ezarrita dagoen esperientzia batean oinarritzen dira: Gasteizko herritarren eskolan, hain zuzen. Erreferente hori erabiliko dute, beraz, eredu eraikitze oinarritzat.

Irailean, prozesuaren lehen fase honetarako beharrezkoak diren laguntza-lanak identifikatu ziren, eta Gasteizko bi aholkularitzarekin kontratatuko dituzte prozesuaren mapaketa eta dinamizazioa (BIKOnsulting, Gadamer-ekin lankidetzan, kontratu txikiaren bidez). Konpromiso-taldea duela hilabete eratu zen, partaidetza zabala izan zuen (erakundeen ikuspegia emateko 7 lagun, herritarren ikuspegia emateko 6 lagun eta adituen ikuspegia emateko 4 lagun), eta azaroaren 13an bildu zen, mapaketaren irizpideak jorratzeko: zein alderdi hartu behar diren kontuan, zeri buruz ari garen herritarren eskola-eredu estandarraz ari garenean...

Aurreikuspenen arabera, mapaketa 2019ko urtarrilean egongo da prest, eta konpromiso-taldea otsailean bilduko da berriz, mapaketa hori egiaztatzeko. Ondoren, 2019ko otsailaren eta ekainaren artean, ereduia zehaztu beharko da, irailean eredu hori ezar dadin gutxienez udalerrri batean pilotu gisa, eta ereduia 2020ko urtarrilean ebaluatu eta probatu dadin.

Martxan dauden ekintzak: mapaketarako parametroak baliozkotzea (irismena, helburuak, irizpideak eta testuingurua); erreferentziako esperientziak bidaltzea (2018ko azaroa), mapaketaren eta diagnostikoaren etapa horretan kontuan hartzeko (konpromiso-taldeak aholku-taldeari); eta hurrengo bilerarako data 2019ko otsailean ezartzea, mapaketaren emaitzak jasota.

#K5 – INTEGRITATEAREN EUSKAL SISTEMA

Liderra: Gipuzkoako Foru Aldundia – Modernizazioaren, Zerbitzuen eta Informazioaren Gizarterako Sistemen Zuzendaritza

Konpromiso honek jorratzen duen erronka zera da, konfiantza gehiago eraikitzea herritarren eta administrazioaren artean. Ondorioz, beharrezkoa izango da ereduak, baloreak eta prozesuak lantzea eta tresnak garatzea, edozein administrazioak aplikatzeko modukoak izan daitezten. GFAREN lidergotzarekin batera, ekarpen zuzena egingo dute Donostiako Udalak eta Bilboko Udalak.

Konpromiso-taldea zabala da, eta hori ikuspegiak txertatuz eratu da: herritarren ikuspegia ematen duten 9 lagun, adituen ikuspegia ematen duten 4 lagun eta erakundeen ikuspegia ematen dutenen presentzia handiagoa, 13 lagun tartean. Hiru aldeen ikuspegia dago.

Taldea eratzeko lehen bilera egin zen, eta, han, plana hedatzeko lehen zirriborroa aurkeztu zen, egiaztatze aldera. Konpromiso-taldeak ekarpen aberasgarriak egin zituen, eta dagoeneko planean sartu dira. Halaber, barneko bitartekoekin jardunbide onen eta nazioarteko beste integritate-sistema batzuen mapaketa egin da, eta bildutako informazioa agiri batean biltzen ari da. Era berean, nazioarteko mapaketa hori tokiko mapaketa batekin osatuko da. Web-iturrien bidezko azterketa eginda dago, baina gehiago sakondu nahi da udalerrien mapaketan. Eudelekin egindako bileran, proiektuan sar dadin ahalegina egingo da, bide aktiboa izan dadin konpromisoan zehar sor daitezkeen kontsultak izapidetzeko orduan (konpromiso horretan lagungarri izateko rola). Konpromiso-taldearen hurrengo bilera urtarrilaren 19an izango da.

Martxan dauden ekintzak: tokiko mapaketa osatzea eta hurrengo faseak garatzen hastea (ereduaren definizioa, kontrol eta jarraipenerako sistemaren diseinua eta prestakuntza-ereduaren diseinua itxita egon beharko dira 2019ko irailerako, ondoren pilotuekin hasteko).

EGINDAKO DESKARGUARI BURUZKO GALDERAK ETA IRUZKINAK

OGPren ekintza-plana ezagutarazteko (erakundeen barruan) **barne-komunikaziorako ahalegin nahikoa egiten ari den zalantzan jarri da**, kontuan hartuta funtsezko elementua dela planari buruzko ezagutza hedatzea haren lider diren erakundeen artean, honako xede hauek lortzeko:

- pertsona eta agente gehiago batzea partaidetza-prozesura (beste sail eta zuzendaritza batzuekin harreman zuzena duten agenteak)
- administrazioko langile teknikoek partaidetza handiagoa sustatzea, planaren jarraitasuna bermatzeko

Horren harira, **zalantzan dago ea Planak**, udal-hauteskundeak eta foru-hauteskundeak tartean izanik, **jarraitutasuna izango ote duen** eta, zalantzan dago, era berean, zein neurri hartu dituzten erakundeek jarraitasun hori bermatzeko.

Foro Erregularra osatzen duten erakundeek adierazi dutenez, **ohiko barne-bideak erabili dira** (esaterako, barruko webean albistea argitaratuta edo barruko saioak eginda planaren aurrerapenaren berri emateko, bai bilera orokorretan, bai zuzendaritzekin egindako bileretan), plana ezagutzera emateko, baina egia da barne-komunikazioa **ohiko arazoa dela zeharkako proiektuetan**. Garrantzitsua da barne-mailan komunikatzen eta lan egiten jarraitzea, baina ezinezkoa da plantilla osora iristea. Erakunde batzuek (esaterako, Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak) aurreikusita dute hedapen-saio bat egitea zuzendaritza desberdinetako arduradunekin. Alde batetik, beren lanean ere izango duelako eragina planak (adibidez, kontuak emateko orduan), eta, bestetik, garrantzitsua delako OGPren markaz harago gobernu irekiaren balioak txertatzen joan daitezela. Lurralde batzuetan saioak udalerrri-mailara ere hedatzeko aukera planteatu da (esaterako, Bizkaian eta Gipuzkoan).

Komunikazioaren arloan, azaldu denez, erakundeak ahalegin handia egiten ari dira planak foroetan jakinarazi eta aurkezpen luzeak emateko. Oso interesgarritzat jo da **hedapen hori gizarte zibilaren aldetik foro erregularra osatzen duten pertsonen eta erakundeek ere egin dezatela**. Halaber, **erreferentzialtasuna irabazteko newsletter bat garatzeko** aukera aztertu da.

Gai hori landuko da talde sustatzailean eta, egin zen komunikazio-plana oinarri hartuta, gako bikoitz hori landuko da: plana herritarrei ezagutzera ematea, baina baita bertan lan egiten duten erakundeei eta pertsonen ere. Aipatu denez, adibidez, diputatuak, sailburuek eta lehendakariak berak parte hartzen badute OGPren planaren bileretan, lagungarria izan daiteke barne- eta kanpo-mailan garrantzia emateko (erakundeen aldetik liderrak diren pertsonen partaidetzak lagundu egiten du prozesua ezagutzera emateko orduan eta, aldi berean, erakundeen konpromisoa erakusten du).

Planaren jarraitutasuna da OGPk berak bere planak garatzean aipatzen duen arrisku-elementuetako bat, eta gako horretatik egiten ari da lan. Osaera instituzionala aldatu egin daiteke, baita taldeak ere. Nahiz eta ez dagoen inoiz berme osorik, berme-elementutzat jotzen dira honako hauek:

- OGPn parte hartzeko konpromisoa konpromiso instituzionala da
- Planaren kanpo-ebaluazio publikoa egitea
- Langile teknikoek parte hartzea hauteskundearen ostean eratzten den talde politiko berriari proiektua helarazteko prozesuan

- Herritarren partaidetza-maila, planeko segurtasun-sare gisa

5. FORO ERREGULARARRAK IZAN DEZAKEEN FUNTZIOA

Planaren aurrerapenen jarraipena egitea da foro erregularraren funtzio nagusia, eta, horretarako, beharrezko informazioa eduki behar du. Era berean, taldeetan parte hartu eta plana hedatzen eta partaide berriak erakartzen lagun dezake.

Idazkaritza teknikoak **proposatu duenez, foro erregularra osatzen duten pertsonen** (konpromiso batean parte hartzen duten ala ez gorabehera), edozein konpromiso-talderen edozein bileratara joateko aukera izan behar dute, zuzenean jakin dezaten zelan ari den ezartzen. Horretarako, beharrezkoa da **agenda partekatua** edukitzea, foroko edozein kidek adierazi diezaion konpromiso bakoitzeko arduradunari ea bilerara joango den. Hala, **gizarte-auditoretzaren funtzioa berma** daiteke (prozesua ez baita baloratzen jasotzen den informazioaren arabera, baizik eta prozesua bizitzeko aukeraren arabera).

Proposamena interesgarritzat jo da, eta gaineratu denez, etorkizuneko plan batean gizarte zibilak zuzendutako ekintzaren bat egotea komenigarria litzateke, bai eta gizarte zibila bera izatea ere administrazioaren ekarpen zuzena eskatzen duena hura hedatzeko. Arlo horretan urratsak ematen hasteko, dinamika bat sor liteke plana “bereago” bihurtzen duena gizarte zibilarentzat, foro erregularra osatzen duten pertsonetatik eta erakundeetatik hasita (administrazioek dagoeneko foro propioa dute, talde sustatzailea).

Garrantzitsua da gizarte zibilak indarra izatea eta aurretiazko lan-espazioa edukitzea, planaren gaineko ideiak eta kritikak egiaztatu eta hura hedatu ahal izateko, Foro Erregularrera eraman baino lehen. Foro Erregularreko agenteek soilik eratu lezakete talde hau, edo konpromisoetan parte hartzen aritu daitezkeen beste agente batzuegana hedatu. Taldeetan parte hartzean argiago ikus daiteke zer ari den gertatzen, baina garrantzitsua da denbora eta espazioa edukitzea gertatzen ari den hori partekatzeko eta horri buruz hausnartzeko (erakundeen presentziarik gabe).

Horrenbestez, foro erregularra osatzen duten pertsonen eta erakundeek beharrezkotzat jotzen badute Foro Erregularra baino lehen bilera bat egitea, **idazkaritza teknikoaren laguntza eduki ahal izango dute, behar dutenerako.**

6. HURRENGO URRATSAK

Honako hau gogorarazi zaie Foro Erregularreko kideei:

- Ekintza-plana edo ekintzak beste foro batzuetan jakinarazi behar badituzte, garrantzitsua da aurretik idazkaritza teknikoak jakinarene gainean jartzea (agendan ebidentzia gisa sar dadin), eta ondoren hitzaldiaren titulua, interbentzioa erakusten duen argazkia, erabilitako aurkezpena eta aurkezpenaren testuingurua (foroa) bidaltzea.
- Idazkaritza teknikoari berriaz jakinarazi behar zaizkio konpromiso-taldeek egingo dituzten bilerak, agenda partekatu dadin eta foro erregularreko kideek parte har dezaten, prozesuaren bermatzaile diren aldetik.

Foro Erregularraren hurrengo bilera urtarrilean izango da (eguna zehazteke).